

HERRIKO KONTUAK: OPOSIZIOA HASERRE / AIA: FILMA GRABATZEN  
IRITZIA: ANTONIO CAMPOS

# KARKARA

954



Urrutiko umeak

# Arraunean ikasi nahi al duzu?



## DBHko neska-mutilentzako ikastaroa Orioko Arraun Klubak antolatuta



- Igeri egiten baldin badakizu hau da aukera arraunean hasteko tostan.
- Ordu eta erdiko 14 saio izango dira azaroaren 2tik abenduaren 19ra.
- Irakasle onenak eta, gainera, bateletako lehiaketan parte hartzeko aukerarekin.
- Izena emateko orria bete eta 2.000 pta. eraman behar dituzu Klubera. Zure ikastetxean eskatu orria.
- Ikastaroa lehenengo aldiz antolatu da, eskola-kiroleko programaren barruan.

**izen emateko epea: urriaren 31 arte**

# Izan zaitez KARKARAREN laguntzaile!

Aldizkaria kaleratzen segitu ahal izateko, KARKARARI urtean 5.000 pta. emateko prest dauden lagunak behar ditugu. KARKARAREN laguntzaile izan nahi baduzu, oso erraza da: paper hau (edo fotokopia, moztu beharrik ez duzu) zure datuekin bete eta utz ezazu KARKARAREN buzoian (Udaletxe atzeko karkaran dago oraindik) edo bidal ezazu koroiez. Gu arduratuko gara gainontzekoaz.

## **Karkararen laguntzaile izan nahi dut**

Izen-deiturak: .....

Helbidea: .....

Herria: ..... Posta kodea: ..... Telefonoa: .....

**KARKARA** aldizkariaren laguntzaile izan nahi dut eta prest nago **KARKARA**ri urteko 5.000 PTAko laguntza emateko. Hauek dira nire kontu korronteko datuak:

Entitate

Sukurtsala

KD

Kontu zenbakia

**KARKARA ALDIZKARIA, Herriko plaza, 1 20810 ORIO Tel.: 943 83 15 27**

# KARKARA

Orio eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea

20810 ORIO

943 83 15 27

karkara@topagunea.com

LEGE GORDAILUA SS 346/90

ISSN 1132-1105

TIRADA 2.600 ale

**EDITOREA**

KARKARA TALDEA  
kultur elkarte

**ZUZENDARIA**

Ana G. de Txabarrri

**ERREDAKZIO BURUAK**

Rikardo Uzkudun  
eta Pat Cowie

**ERREDAKZIO TALDEA**

Miren Etxeberria, Jakes  
Goikoetxea, Ana Iturain, Iñaki  
Iturain, Nere Manterola,  
Ainara Peña eta Jabier  
Zabaleta

**AIAKO ERREDAKZIOA**

Eli Lasa

**PUBLIZITATEA**

Mari Jose Alkain

**TESTUEN ZUZENKETA**

Iñaki Iturain eta  
Jabier Zabaleta

**ALE HONETAKO LAGUNTZAILEAK**

Antonio Campos, Eusebio  
Lasarte eta Arreta taldea

**ARGAZKIAK**

Ana G. de Txabarrri

**DISEINUA**

AZALA Goio Arana

BARRURDA Jabier Zabaleta

PUBLIZITATEA Iñigo Gaztañazpi

**AZKEN ORRIALDEKO MARRAZKIA**

Patxi Txiki

**BANATZAILEAK**

Miguel Angel Sanz (Orion)

Iker Zumeta (Aian)

**INPRIMATEGIA**

Gertu Koop. E. (Ofati)

KARKARAK ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen  
edota iritzien erantzukizunik.

KARKARAN argitaratutakoa berre-  
man daiteke, osorik edo zatika,  
baldin eta iturria aipatzen bada.

## BERTSO JARRIAK Arraunlariei

Bi milagarren urte  
hau degu eredu,  
Kontxako estropadetan  
apustu ta endredu;  
ezer ez da erreza,  
baina nagusi gu,  
hogeita hamargarrena  
ekarria degu.

Kontxako ostan ere  
garaipenak azkar,  
etsai gabe gelditu  
beste denak marmar,  
Donostiako patroia  
goraipatu behar  
oskardun izarra da;  
zorionak, Oskar.

Santurtzin hasi ginan  
Zarautzen jarraitu,  
Zierbena, Zumaia  
ta Kontxa sentitu,  
BBK, Corte Inglesa  
denak errenditu;  
Kantabrin nork egin du  
guk adina meritu?

Gizaldia hasi gendun  
Kontxan irabazten,  
amaitu ere berdin  
gatza da erakusten,  
zorionak Altxerri  
ta saiatu eusten,  
ehun urteurrena  
baita hurrengo urten.

EUSEBIO LASARTE

### PUBLIZITATE PREZIOAK

**IRAGARKIA ALEKO JARRITA**

Modulu bat .....	1.500 PTA
Bi modulu .....	3.000 PTA
Hiru modulu .....	4.500 PTA
Lau modulu .....	6.000 PTA
Sei modulu .....	9.000 PTA
Zortzi modulu .....	12.000 PTA
Orrialde erdia .....	15.000 PTA
Orrialde osoa .....	22.500 PTA

**IRAGARKIA BEHIN JARRITA**

Modulu bat .....	2.000 PTA
Bi modulu .....	4.000 PTA
Hiru modulu .....	6.000 PTA
Lau modulu .....	8.000 PTA
Sei modulu .....	12.000 PTA
Zortzi modulu .....	16.000 PTA
Orrialde erdia .....	20.000 PTA
Orrialde osoa .....	25.000 PTA

Iragarkia hamabostero edo hilero jartzen dutenei (bi aletik behin) % 10eko deskontua egingo zate.  
Publizitatea kontratatuzeko, hitz egin Mari Jose Alkainekin (656 75 04 89 edo 943 13 41 46)



Euzko Jaurlaritzak  
diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Foru Diputazioak  
diruz lagundutako aldizkaria



Orioko Udalak  
diruz lagundutako aldizkaria



Aiako Udalak  
diruz lagundutako aldizkaria

## Santioko festei egindako kritikaren erantzuna

KARKARA aldizkariko azkeneko alean irakurri genuen Santioko festei egindako kritika. Guk ere gure iritzia azaldu nahi genuke:

"Han zan bat" hori, baten bat balitz behintzat, ez luke horrela jardun behar, ez jakinean, begi guztietatik ez baita berdin ikusten.

Gu ere han baikinan.

SANTIOKO JAI BATZORDEA

## Lekuko zintzoa

Orioko herritarrok itsuak eta gorrak, baina mihiluzeak garela dirudi.

Toki guztietan izaten dira arazoak herritarren artean eta gu ez gara gutxiago izango, baina Orion gertatzen dena mingarria egiten zait.

Istripu, arazo edo gure arteko gora beheraren bat gertatzen den momentuan inork ez du ezer ikusi ez eta entzun, baina eguna pasa orduko, herri osoak dena eta denetik daki.

Honekin zera adierazi nahi dut: orain ez bada geroxeago, denoi egokitzen zaizkigula momentu txarrak, eta orduan behar ditugula lagunak, besterik ez bada, *zer moduz zandete* galdetzeko. Lehendabizi nigandik hasi beharreko gauza da, ze, ikusi ditudan ikusita, ni ere itsua eta gorra bihurtu naiz.

Ahaztu baino lehen: eskerrik beroenak une larri batean —istripua gertatu zen— nire etxeko bati lagundu diozun ezezagun gizonetako horri, telefonoz zure izena eman eta, laguntza eskainiz, ikusi duzuna baieztatzeko prest zauden horri.

M. J. ELORTZA

## Leloric lelo

Ostiralak hamasei, goizez, Euskadi Irratia piztu eta Joxerra Garziaren diskurtsoa bat entzun nuen. Bertan euskal intelektualen artean, sinatzeko omen dabilzan bi dokumentu aipatzen



gutunetarako

# OHARRAK

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARAREN buzoian utz daitezke (udal-letxe atzeko portalean), edo gure lokalean entregatu (kultur etxean). Posta elektronikoz ere bidal daitezke honako helbidera:

karkara@topagunea.com

KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

zituena, eta bertan zioen biak kontrajarriak diruditen arren, biak sinatu dituela, ez daudelako kontraesanean. Ni ez naizenez *primat* bat besterik eta ez dudanez interesik ere, ez ditut osorik ezagutzen, baina berak esan zuenarengatik arrazoia ematen diot: biek gauza bera diote, Mayor Orejaren lelo bera: ETA dela Euskal Herriaren arazoa. Hemen badirudi, pentsalari eta pentsulari gehienak ados jarri direla, Savaterrengandik hasi eta Lopez Adanenganaino errudun bera ikusten dute gure herrian eta lelo bai lelo, futbol eta zirkismo adiktoak ez garenoi, ezin aspergarriago ari zaizkigu hilakutzen komunikabideak, egunkariak bezperakoan fotokopia diruditelarik; nola aldatzen diren gauzak, kamarada. Intelektualok ez kezkatu, bata edo bestearen artean aukeratzekoan, sakonean gauza bera diotelako, antza denez.

Horien diskurtso bakezale

kontrajarriak, adibidez eskatuko luke indar armatu guztiak, NATO barne, gure herritik desagertzea, presoak etxeratzea, ertzainek porra eta pipota, txistu eta tanborilaren truke aldatzea, Banka eta energia enpresak espropiatzea, parke natural izendatzea gure lurralde eta itsaso osoa, alferrikako politikoen soldatak nekazariei ematea, Ardanazari jubilatzen minimoa ezartzea, adinera iritsi baldin bada, eta bere diruak inmigranteen artean banatzea, porlangintza tregua... Ez dut zalantzarik horrela ETARI ere jardun armaturako aitzaki guztiak kenduko genizkiokeela eta ingurukoak utziko baligute munduko herri baketsu bakarrenetako bat izatea lortuko genukeela.

SABINO UGALDE

EGUNKARIATIK HARTUA 00-09-19

## HEMEROTEKA

### Kanpak Txikiri

(...) mikrofonora presaka bezala hurbildu eta, jada, oriotarrak bere garaipena gauzatzen ari zirela, Txiki Larrañaga zenari, hainbat aldiz hamahiru zaldiko Kanpa ontziko txofertzan aritu eta istripuz hil zen zarauztar txikiari eskaini nahi izan zion (Jose Julian Olasagastik) uretako balentria. Ezin izan zuen. Lehertu egin zen. Lehertu lagunaren oroitzapen gomutan. Eta formalki ezagutzen ez dudan Olasagasti jauna, jaundu egin nuen, etxeoagotu. Kirolaria limoi zitroin modura marruskatu eta lehterazi ondoan, ahanzpen zulora igortzen dugun garaioan, oriotarrek erakutsitako lotsa itxaropengarria zait oso. Kontxa behar zuten. Txikirekiko atxiki-mendua publikoki adierazteko. Eta lortu dute. Egina.'

JOXE MARI OSTOLAZA 'XALBARDIN'  
IRAILAREN 24KO ARGIAN IDATZIA

**ARKAITZ**  
**Taberna**

Pintxoak, plater konbinatuak,  
bokatak

Abeslari kalea, 4 Tel. 943 83 16 57 ORIO

**ERBUSTA**  
**ORIO-KOASTA**

EDARITEGA  
**KOLON TXIKI**

JATETXEA

Herrizko Esporrika, 1 - Urteaketa - 48041 - ORIO

# Olinpiadetan kirolaria bazina...?



**ANDRESA LAZKANO**  
60 urte

Igerilaria izango nintzateke, estilo guztietan. Kirol egitea gustatzen zait, indartsuagoa eta osansuntsuagoa izateko. Orain dela 5 urte ikasi nuen igeri egiten, Usurbilen, eta La Perlara joaten naizenean egiten dut. Olinpiadetako lasterketak ikusten ditut oso gustura, baina ezin izango nituzke hain luzeak egin, bukatu baino lehenago nekutako nintzatekeelako.



**JOSU ATORRASAGASTI**  
9 urte

Ni, Olinpiadetan, mendiko bizikletan ibiliko nintzateke. Guai da eta pila bat zikintzen zara. Hori dut oso gustukoa. Karrerak egiten ditut Orioko paseoan, bestela Santiyon, Zarautzen edota mendian ibiltzen naiz. Gainera, ahal izanez gero, profesionala izango nintzateke mendiko bizikletarekin. Olinpiadetan igeri lasterketak, atletismoa eta eskubaloia ikusi ditut.



**MAITE AZKUE**  
39 urte

Ehun metroko lasterketetan hartuko nuke parte, zalantzarik gabe. Lehen ibiltzen nintzen eskolako olinpiadetan eta askotan irabazten nuen. Hankamotzak omen nituen horretarako, baina azkarrak. Oinez ibiltzea gustatzen zait, gaur egun.

Aurtengo Olinpiadak ez ditut telebistaz jarraitu; kirol egitea gustatzen zait, baina ikustea ez.



**ADOLFO RODRIGUEZ**  
38 urte

Nik igeria dut oso gustukoa, eta hau da gehien praktikatzen dudana, bai igerilekuan, bai itsasoan. Gazteago nintzenean, aldiz, futboleam ibili nintzen gehiago.

Sidneyko Olinpiadetako igeri saio gutxi ikusi dut aurtien, ordutegia aldrebeza izan da eta. Hala ere, atletismoa, igeriketa, eta pizina saltoak ikusten ditut, ahal dudanean.

**Orioko Ogia**

**ORIOGI**

DPIK OKINDEGIA  
Frontoi ondoan  
Ifnoa: 943 83 01 89

**Peluteria eta estelika mirtoa**

**ZSS**

- Tuta laguntza eta koloretan nardala
- Bestelako bizi iraultza
- Aizkari erakutsia
- Fraktura
- Deplazoa

San Bitorio, 9 Tel: 943 83 31 70

**OLIDEN HARATEGIA**

**Euske Gudari, 3**  
Ifnoa: 943 83 10 86

**HI**

**HERRI IKASTOLA**

**GURASO KOOPERATIBA**

ABESLARI KALEA, 8  
TEL. 943 83 47 04  
FAX: 943 13 09 38

**GOIZEKO** ☀️

**Kafetegia**

Gosariak  
Pintxoak  
Plater Konbinatuak  
Ogitartekoak

*Pasteleriko oskaruak hartzen dira*

*Etzera eramateko eskatu nahi duguna!!!*

Alta Lortundi Kalea, 29  
Tel 943 83 28 55 0210



**LEDA GIRA.** Saltsa ugri darabilte Udalean azkenaldi bonetan gobernuak eta oposizioko alderdiak.

## Oposizioa haserre

■ *EH, EA eta PSEk alkateari dedikazioa osoa kentzekotan*

*Legealdia bukatzeko oraindik bi urte eta erdi falta dira eta ez da giro Udalean. EAk eta EHk, gobernu akordioa hautsi eta alkatearen dimisioa eskatu zuten ekainean. Dimisititu ez duela ikusita, alkateari liberazioa kentzeko mozioa aurkeztu dute bil honetan.*

OSO NAHASIA DAGO Udaleko egoera azken bolada honetan. Kiroldegiko aferraren ondoren, EA eta EHk gobernu akordioa hautsi eta alkatearen dimisioa eskatu zuten, PSEekin batera. Alkateak ez du dimisititu eta Gobernuak, EA]ko zinegotzietz osatua, gutxiengoan lan egiten jarraitu du orain arte.

### UDARA ETA GERO

Irailaren 21ean urgentziatzko mozio bat sartu zuten EHk eta EAk hurrengo plenoan eztabaidatzeko. Baina irailean ez du alkateak plenorik deitu, gairik ez zegoela eta; ondorioz ez da EH eta EAren id-

tziazen inguruko erabakirik hartu. Geroztik, urriaren 4an, beste idatzi bat sartu dute, alkatea ezohiko plenoa deitzera behartzeko. Idatzi hori, PSEk ere sinatu duena eta aurrekoa baino osatuagoa, hiru puntuotan oinarritzen da:

### HARIARI TIRAKA

## *Ez al da adierazgarria?*

Rikardo Uzkudun

**U**dalean gertatzen ari dena ez da normala; ez, behintzat, ohikoa. Norbaitek pentsa dezake Eusko Jaurlaritzako gobernuak ere gutxiengoan ari dela lanean, eta oposizioko alderdi batzuek Lehendakariaren dimisioa eskatu dutela, herriko kasuarekin nolabaiteko parekotasuna bilatu nahirik. Baina, Orion, legebiltzagrean muturka ari diren alderdiek, EH eta PSEk adibidez, bat egin dute alkatea bere lekutik kentzeko. Pentsa! azkenaldi honetan egoera politikoa nola dagoen ikusita, EH, EA eta PSE zentsura mozioa aurkeztzekotan ibili dira. Azkenean, goiko presioen eraginez, atzera egin dute. Ez al da adierazgarria?

Lehenengoa, Alkateari Udalean duen dedikazio osoa liberazio kentzea. Bigarrena, maiatzean onartutako ezohiko inbertsio plana, eta kiroldegiri buruzko erabakiak bertan behera lagatzea. Eta hirugarrena, zenbait partida (alkatearen dedikazioa, kiroldegiko ordainsari profesionalak eta obrak) Kreditu ez Erabilgarri modura uztea.

### OPOSIZIOKO ALDERDIEN IRITZIA

EH, EA eta PSEko zinegotziek esan digutenez, beren asmoa hemendik aurrera kontu guztiak plenotik pasatzea da, gestioa orain artekoa baino garbiagoa izan dadin, ez baitaude prest beste bi urtetan horrela jarraitzeko. Emeterio Iribarrek zera argitu digu: *guk kontu guztiak argitu nahi ditugu, gestioa ilana, trakeria eta motela izan baita.* Jose Migel Leundak ere, beren jokoera argi utzi nahi izan du: *Gu ez gora herriko lanak gelditzeko asotan, guk lanak egitea nahi dugu, baina arazo gestioatuta, eta kontrolatuta.* Juan Priedek zera dio idatziaz inguruan: *Gure asmoa da alkateak ez manejatzea nahi dituen bezala dira publikoak, et plenotik pasatzea.*

### ALKATEAREN IRITZIA

Jose Migel Makazagak dio Orio hezalako herri bat bideratzeko beharrezkoa dela alkatea liberatua izatea, eta bere kargua bi arrazoirengatik bakarrik utziko duela: edo zentsura mozio baten bitartez edo bere alderdiaren konfiantza galtzen bada. *Okerrena ez da bori, okerrena denen artean abo batez onartutako aurrekontuak bankaz gora lagatzea da. Ba al dakite zertara jotatzen ari diren aurrekontuekin? Dena gelditzen ari dira, berriaren kalterako. Etorkizunari buruz galdetuta, hau esan digu: Gu prest gaude, lehen bezala, alkar-lanean aritzeko; baina, bori bai, garbi jotatzekotan.*

**Gozategiren disko berria azarorako**

IRAILAREN bukaeranjardun ziren disko berrirako kantuak grabatzen Gozategikoak. Elkarlanean disko etxearekin aterako dute berriz ere eta azarorako kalean izango dela esan digute.

**Igogailuak jartzeko diru laguntzak**

UDALEKO Hirigintza bazterdeko buruak, Mirari Arruabarrenak, esan digunez, Udalak 2.000.000 pta.ko aurrekontua onartua dauka, diru laguntzak emateko, etxean igogailua jarri nahi dutenentzat. Laguntza horietako bat eskuratu nahi duenak jo dezala Udaleko zerbitzu tekniko-ra eta han emango zaio informazioa.

Bestalde, esan digu udaletxe berrituaren behin-behineko planoak agerian jarrita daudela, jendeak ikusteko, udaletxeko bulegoetan.



ZARAUZTARRIK OSATUTANO TALDEA. Mikel Argote, ezberri dagoena, zuzendari eta aktoreetako bat da.

**Antzerkia Ruandaren alde**

JOAN DEN IRAILAREN 22an, ostiral gauean, Algara taldeak *Un faldón de Testamento* izeneko lana antzeztu zuen kultur etxean. Saioa Ori-Zautz elkarteak antolatu zuen eta sarrerako dirua Ruandako Mugina herrirako bildu zuten. Antzeztanaren aurretik Muginak eta, batez ere, Juan Cruz Juaristi misiolariak bizi duen egoeraren berri eman zuten Santi Zaldua eta Inazio Lertxundi antolatzaileek. Juan Cruzen misio laguna zen Isidro Uzkudunen heriotzak

eragin handia izan omen du han; giroa gaiztotuta omen dago eta Juan Cruz Aste Santuan etxeratzekotan omen da.

Jende asko izan zen, baina ez ziren aulki guztiak bete. Hori bai, primeran pasa zuten eta algara batean egon ziren. Izan ere, antzeztana familia xeble baten testamentu kontuetan oinarritzen zen, edozein etxetan gertatzeko moduko pasartez osatuta. Beraz, bi orduko ikuskizunean bi helburu beteta: elkartasuna eta dibertsioa.

**LORETXU JATETXEA**

Eusko Godari, 18 - Tel: 943 83 00 07

**Gure Txoko**

Argara, Zarautz

**Tragoxka Pub**

Arizaga, 11  
☎ 943 13 08 25

**TANATORIO ZARAUZ**

EUROFUNERARIAS TALDEA

**Hileta eta zerbitzu orokorrak**

**GABON**

Plater konbinatuak, plintxoak eta txokolatadak

Tel: 943 83 06 09

**Lizaso**

Mezurialde

Falke Gudarri, 46 - Tel: 943 83 07 84  
Ola Lantzaritza - Tel: 943 13 13 91

**URANGA**

Bardendiegia

Opari, menaje, herramentak...

Telefax: 943 8312 36 Eusko Godari, 5

\* Donostia eta probintziako ospitaleetan  
\* Alderoko zerbitzua  
\* Belatoria gelak  
\* Korioak, eskolak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarautz  
Tel/fax: 943 13 22 52



**HERRIKOTAN IATEK.** Lan zaila badirudi ere, elkartutako jendeak jan eta bitz egin zuen galaxki.

## Karkara berriaren aurkezpena egin zen Orioko kultur etxean

■ 40 bat lagun elkartu ziren kultur etxeko hamaiketakoan

IRAILAREN 23AN, larunbatarekin, KARKARA hamaboskari bihurtu dela eta, erronka berriaren aurkezpen ekitaldia egin genuen kultur etxean. Aurkezpenarekin Ana Gonzalez de Txabarri, KARKARAKo zuzendaria, hasi zen. Berak, hilabetean behin argitaratzen dituen hamabostero kaleratzen hasteko izan diren arrazoiak azaldu zituen bertaratutakoiei eta guztioi esker kaleratzen dela aldizkaria azpimarratu zuen. Ondoren, Aiako alkateak, Juan Carlos Zuloagak, hitz egin zuen eta berak Aiarentzat KARKARAK duen balioa azpimarkatu zuen. Hain herri sakabanatua izanda, KARKARAK beren arteko lotura handitzen duela esan zuen, beste gauza batzuen artean. Orioko alkateak, joatekoa bazen ere, azkenean ez zuen azaltzerik izan.

### KARKARARI JARRITAKO BERTSOAK

Orain arte, eta aurrerantzean ere, gurekin kolaboratu duten bertsolarietako batzuk bertan izan ziren, Jose Mari Lertxundi, Ibai Esoain, Xabier Sukia eta Egoitz Eizagirrek bertso bana bota zuten KARKARAREN pauso berria gorai-patuz. Esoainen bertsoa adibide:

Hilean behingo agerraldia  
bi astetara pasa da,  
ispiluari begiratzeko  
zergatik izan ikara;  
herrigintzaren fruitua eta  
geu garenaren islada,  
gure bideen, gure pausoen,  
gure urratsen karkara.

Ondoren, pintxo eta edatekoak lagun, tertulia ederrean aritu ziren hamaiketakoak.

## BERRI LABURRAK

### Erromesak Orion

JOAN den larunbatean meza berezia ospatu zen Orion, beroa eta ederra. Hiru autobuskada erromes etorri ziren meza Orion ospatzera, horrela Santiago Bideko erromesaldiari bukaera emanez. Erromes gehienak frantsesak ziren, baina baziren Argentina, Mexiko, Errusia eta beste hainbat herrialdeetakoak ere. Taldearen zuzendaria Silvia paristarra oriotar baten laguna da eta behin berarekin Orion meza entzun eta txoratuta gelditu zen, hemen herriak nola kantatzen duen, «beste inon ez bezala»; horrexegatik nahi zuen meza Orion. Lagun hori 94 urteko Juanita Telleria da, aspaldi Mexikon bizi dena.

Halaxe izan zen: herriko parroki-koruak eta herriak kantu saio zoragarria eskaini zieten erromesei. Ez zaie berehalakoan ahaztuko!

### Salatxoko erakusketa

ARALAR eta Laurgainen egindako argazkiak ikusgai daude Salatxo tabernan. Fermin Etxeberriak egin ditu koloretako argazki hauek, udazkenaren edertasuna islatuz, erakusketa-aren izenak esaten digun bezala: *Amiaterako jaialdi bandia*. Urria osoan duzue aukera argazkiak ikusteko.

**Neska euskaldun bat behar dugu igande eta jai egunetan denda batean goizez lan egiteko.**

**Gauzez deitu:**  
**943 83 08 28**  
**943 13 15 66**



**Arin y Embil**

•ALTZARIETARAKO PROIEKTUAK  
•DEKORAZIOA  
•GUK GEUK EGINAK

Tel. 943 831 176 - Fax. 943 455 962

Fabrika eta erakustokia (2000 m2)  
20810 ORIO

Sancho el Sabio, 21 (500 m2)  
20010 Donostia

e-mail: decoracion@arinyenbil.com



BARRIOAN GIROMAKO AMPURIA BRAVAN. Lasai eta irribarretan ageri dira oristarrak.

## Zaharrak Katalunia aldean

**ASTEBETE PASATU ZUTEN** Costa Brava Orioko 66 lagunek, Zahar-Etxeak antolatutako bidaian. Irailaren 18an atera eta Copacabana hotelean ostatu hartu zuten, Lloret del Mar-en.

Ampuria Brava joan eta ordu beteko ibilaldia egin zuten 19an, barku berezi batean, hango herri barruko kanalak ikusteko. Titanic Museoa ere bisitatu zuten. Hurrengo egunean Port Aventura bazkaldutuzten, Mexikoko musikak lagunduta, eta gazte sena

zutenak hango barraketan ibili ziren. 21ean, Bartzelonan, bisita asko egin zituzten, politik gainera, autobus gidariaren laguntzaz. Geroago, Tarragonako lau izarretako hotelak jarritako bazkaria mundiala izan omen zen. Han komeriak izan zituzten komuneko iturri automatikoekin, ura nola atera asmatu ezinik!

Azken egunean, puntual elkartu, eta denak pozik bueltatu ziren etxera, hurrengo bidaia prestatzeko asmoz eta gogoz.

### HANDIK ETA HEMENDIK

#### IBON GAZTAÑAZPI

*Arraunlaria*

"Ingalaterrara noa urte beterako, eta han errugbian edo beste kirol batean hasiko naizela pentsatzen dut."

EL PERIODICO  
UNIVERSITARIO 2000/09



#### ERRAMOLINO SOLABERRIETA

*Garai bateko arraunlaria*

"Viva Orío esateagatik kartzerlara sartu ninduten."

BERTATIK BERTARA (ETB)  
2000/09/11



#### ANJEL LERTXUNDI

*Idazlea*

"Kanpotik ikusita, uste dut, Donostiako zinemaldiak zinemazaletasuna bultzatzeko xedean, behintzat, ez duela huts egiten."

EGUNKARIA 00/09/27

TALLERES MECANICOS  
**MANTEROLA S/L**  
GIPUZKOA - VALLE ERRA

Bº Santiago - Apartado, 18  
Tel. 943 830 743  
Fax. 943 134 634  
E-mail: mmanterola@euskalnet.net  
20 810 ORIO - GIPUZKOA

**TMM**

AENOR  
EUSKAL  
ISO 9002

Válvula de esfera con certificado de calidad AENOR

*Marija*  
ileapaindegia

Neska eta mutilentzako

- Estetika
- Masajea
- Tatuaiak

Eusko Gudari, 8  
Tel. 943 13 47 29

**RAMIRO**  
943 83 10 48

EDARITEGIA

**ANTILLA**  
JATETXEA

Abeslari Kalea, 2  
Urutizkina 943 832 309

20010 ORIO



**GOGOR LANIAN.**

Sasioan dabil Izeta II.a eta lan polita egitu auzken ainetan.

**HARRIJASOTZEA**

## Izeta II.ak marka ondu du 100 kiloko zilindrikoarekin

■ *Landarbide hirugarren, Harri Handien txapelketan*

JOSERRAMON IRURETAGOIENAK, Izeta bigarrenak, lehen zegoen marka ondu zuen aurreko igandean Aizarnazabalen, 100 kiloko harri zilindrikoari minutu batean 24 altxaldi emanda. Errekor hori Jose Anjel Dolarak jarri zuen, orain dela 18 urte, Gernikan, eta Jose-ramonek errekorra ontzeko asmoa zuen eta 24 aldiz jaso zuen harria, baina 25.a altxatzera zahoala minutua bete zen.

Gogoratzekoa da Izeta anaiaik aurtengo udan egin duten lana. Mallabiko X. Sarian lehenengo eta bigarren izan ziren Joserramon, Izeta II.a, eta Jesusmari, Izeta III.a, hurrenez hurren. Joserramonek 94 jasoaldi egin zituen guztira eta Jesusmari 88.

Abuztuaren 26an Elgoibarko Txapelketa jokatu zen eta, han ere, Izeta II.a nagusitu zen 94 jasoaldirekin. Kasu honetan, Izeta III.a hi-

rugarren geratu zen; bigarrenak, Egik, baino jasoaldi bat gutxiago egin eta gero.

Igeldoko harria altxatzeko egin zen saioan, aldiz, ezin izan zuen Joserramonek garaipena lortu. Bigarren geratu zen Goenatxoren atzetik, hark baino 5 jasoaldi gutxiago eman baitzizkion Igeldoko harriari. Goenatxok 17 aldiz jaso zuen harria eta nahikoa erraz irabazi zuen.

**GOENATXO NAGUSI HARRI HANDIEN TXAPELKETA**

Joan den igandean, urriaren 1ean, Harri Handien Euskal Herriko txapelketa jokatu zen Gernikan. Bertan, Landarbidek hirugarren izatea lortu zuen lan txukuna eginez. 200 kiloko errektangularrari zazpi jasoaldi eman zituzkion, 175eko zilindrikoari bederatzi, 150eko kubikoari hamabi eta 125eko bolari beste hamabost. Guztira 6.650 kilo altxa zituen.

**MENDIA**

## Talai-Mendiren irteerak

IRAILAREN azken aste-buruan Erniora egindako urteroko irteeraren ondoren, urrirako beste batzuk prestatu dituzte Talai-Mendikoeak. Hasteko, urriaren 7an Bitet behekoa izeneko arroila jaistera doaz Pirineotara. Urriaren bigarren asteburuan, oraindik zehaztu gabeko inguruko mendiren batera joango dira eta urriaren 28 eta 29an, berriz ere, Piriniotara joango dira Balaitus mendia igotzera. Irteera hauen berri zehatzagoa emango dizuegu hurrengo alean.

**ARRAUNA**

## Aizperro Urdaibaik fitxatu du

JOSEAN Olaskoaga Aizperro Urdaibai taldeak fitxatu du datorren denboraldian beren tostetan arraun egiteko. Aizperrok iaz laga zuen arrauna eta aizkorarako prestatzen hasi zen. Aurtun, Urdaibaik eskaini dion aukera aprobetxatuz, arraunean eta aizkoran arituko da. Urdaibai taldeak, gazte jendeari laguntzeko, eskarmentuko arraunlariak fitxatu ditu; Aizperroekin batera, 1977an Orion ibilitako Xabier Urkizu ondarrutarra ere bai. Esan beharra dago, fitxaketa hauek direla-eta Elantxobeko arraun elkarteak laga egin duela Urdaibaiko proiektua.

**ASADOR XIXARIO**  
 Pedro Gaxiola Kalea, 2  
 20.943.03000 - ORIO

**PORTU ERRETEGIA**

Santio Erreka Auzoa, z/g  
 ☎ 943.83.23.87  
 20809 AJA - ORIO

**ALTXERRI**  
 Jatorria  
 Bar-Restaurante

8º Udegun. Tel: 943.83.07.62. AJA-ORIO

## SOFBOL

### OBB Madrilen eta Bartzelonan

OBBko juniorren taldea Madrilen izan da Espainiako Txapelketa jokatzeko. Bertan, sei taldetatik laugarren gertatu dira. Gustura daude egindako lanarekin, jende berriak esperientzia handia hartu baitu txapelketa honetan.

Datorren asteburuan, urriaren 7 eta 8an, seniorrak Bartzelonara joango dira Erreginaren Kopa jokatzera.

## EHIZA

### Inazio Egurtza garaile txapelketan

PASADENIGANDEZIturriotzen jokatu zen, inguruko ehiztarien artean, txakurrekin lagundutako ehiza xehe, pieza txikien, txapelketa. Inazio Egurtza aiarra izan zen garaile, bi eper eta hiru faisai ehizatuta. Bigarren Urdantako Martin Ibargoiaren sailkatu zen hiru eper harrapatuta; eta hirugarren Rafa Bergado Txurro oriotarra izan zen bi eper eta faisai bat ehizatuta. Hiru hauek azaroaren bostean jokatuko den Gipuzkoako txapelketarako sailkatzea lortu zuten.



ARRAUNLARI BERRIAK. Eskola-kirola programaren bitartez, arraunlari berriak erakartri nahi dira.

## ARRAUNA

### Arraunean ikasteko aukera

BIIKASTARO EMANGO dira Arraun Elkar-  
teak antolatuta ikasturte honetan. Aurrenengo azaroan bertan hasiko da; 2an hasi eta abenduaren 19 arte luzatuko da, eta tostako arraunean hasierako gauzak ikasteko izango da. Bigarrena udaberriaren emango da, martxoaren 1etik apirilaren 20a arte, eta mobileko arraunketan ikasteko balioko du.

Diputazioak egiten duen eskola-kiroleko programan lehenengo aldia da arrauna sartzen dela eta Arraun Federazioaren laguntza izango du. DBHko neska-mutilei zuzenduta dago.

Asmoa da Lasarte, Usurbil, Orrio eta Zarautzen ikasten ari direnei eskaintzea eta, horretarako, ikastetxeetan izena emateko orriak edukiko dituzte nahi duenak eskura, Ordu eta Erdiko 14 saio izango dira. Igerian ondo jakitea da baldintza bakarra parte hartzeko. Arraunean ikasteaz gain, bateko lehiaketan ofizialean Orioren izenean jokatzeko aukera ere izango dute ikastaroa egiten dutenek.

Dudarik gabe, herri kirolari beharrezkoa duen bultzada nabarmena izango dela gaste-txoentzako ekitaldi berri hau.

**K2**  
taberna

Zeuk bilatzen duzun giroa!!

Kinkiladenda - Ume arropa

**argine**

Argife Azkarate Suinaga  
Eusko Gudariak, 9 - Tel. 943 13 48 89 - ORIO

**AUREGI**  
TABERNA  
JATETXEA

Gozategi  
erparentza  
AIA  
Gipuzkoa  
943 830728

Maria Luisa Arruti

**INDO**  
Transportes Frigoríficos  
NACIONAL E INTERNACIONAL

Olazkoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

**AHOKULARITZA**  
Fiscal, laborala, kontablea

**Eugenio Garmendia**  
ASEGURU ARTEKARIA

IBAI ONDO, 1  
Tel: 943 83 44 66 - 943 83 49 17

## NIRE HONETAN

## Udarako lezioa

**L**ezio ederra eman dit zenbait herritarrek aurtengo uda honetan. Saharar bat izan da gure etxean, Mulaik. Plastikozko poltsa bat eskuan zuela etorri zen, soinean zuena besterik ez eta, gurean izan baldin bada ere, herritar askoren laguntza jaso dugu.

Mulaik 11 urte ditu eta bere bizitzan amestutako jostailu guztiak izan ditu bi hilabeteetan. Azan, *kamiol pila ederra bazeukanat etxean, eta erre-galatu egingo zizkionat*. Aste-ro zituen jostailu berriak. Eta eramaterakoan, a zer lanal denak eramane nahi... eta ezin.

Arropa pila bat ere iritsi da etxera. Mulaik ezin zuen sinetsi denbora gutxian egin zituen pertenezak guztiak bereak zirenik. Bere logelara jasotzen zituen gauero, hurrengo egunean joango balitz bezala. Beretzat ez ezik aita, ama eta anai-arrebentzat ere iritsi zitzaizkion arropa. Mailetan, ordea, 20 kilo bakarrik (?) eramane zitzakeen, eta, aukeraketa egin ondoren, arropa dezente geratu da gurean.

Izan da dirua eman digunik ere: *Aizan, erasion zerbait Saharako negurako, beharko din eta, esaten omen zioten amari*.

Ni, behintzat, harridura geratu naiz. Harridura eta pozik, Orion zenbat esku-zabal dagoen konturaturuta. Berez banekien, edo pentsatzen nuen, baina gertutik bizitzeak susmoa baieztatu egin du.

Hemen ere badago non on egin. Zenbaitentzat Saharako negua bezain gogorra izango da hemengoa ere. Eta haiei begira jarri beharko genuke.

Guk, behintzat, Mulaik eramane nahi baina eramane ezin izan dituen jostailu eta arropak banatuzetik hasi beharko dugu.

Eskerrik asko denek.

**NERE MANTEROLA**

# Arrauna-olinpismoa

ANTONIO CAMPOS

**B**este denboraldi bat amaitu da eta Orio punta-puntan ibili da: nola aulki mugikorrek arraunean hala tostakoan. Lerro hauen helburu bakarra hausnarketa eraman gaitzaketen ideia batzuk kaleratzea da.

Lehenik eta behin, eskerrak eman behar ditut. Askok eta ondo hitz egin da gure herri txikiak, Oria ibaia itsasoratzen den ertzeko herri honetaz; eta asko hitz egin da pertsona batzuek, arraunlariak eta zuzendaritzakoek, lan asko egin dutelako urte osoan. Eta txapeldunak izan direlako irten gara kalera txalotzera eta gorapatzera... eta horrekin hete dugu gure lana. Horrela, gutxi batzuen ahalegina, herri oso batentzako onura eta gehienon parte hartze hutsa bilakatzen da.

**1965EKO MAIATZAREN EGUN** batean, parrokiako aretoan lagun-talde bat elkartu, orduan gazteak, eta Orioko Arraun Elkartearen abian jarri genuen. Gure artean ideia argia eta sendoa zebilen: «olinpismorantz tradizioa galdu gabe». Orion ez zen praktikatu aulki mugikorrek arraunketa eta lehen bost urteetan arraunketa horretan bakarrik jardun genuen. Guk uste osoa genuen Euskal Herrian aukera guztiak zeudela, urte gutxiren buruan, modalitate olinpikoan Europa mailan lehiakorrak izateko, baita dominak lortzeraino ere. Nazioarteko estropadak, Oxford-Cambridge, Espainiako txapelketak, dominak Munduko txapelketetan eta... dominak olinpiadetan. Oso urte gutxitan arraunketa olinpikoak bizia zeukan Orion, eta Orioren esker Euskal Herriko beste herri batzuetan.

Baina, «tradizioa galdu gabe». Tostako arraunketako estropadak lehiaketak ziren, baina ez kirola. Arraunlariak ez ziren kirolariak, lehiara jarduten zuten gazteak ziren, baina oso gaizki prestatuak zeuden. 1979 urtean Orio Arraun Elkarteak Kontxako estropadetan parte hartzea erabaki zuen. Inork ez zuen pentsatzen, ezta Orion ere, gaztetxo haiek KTE-en ontzi beltz eta astun haiekin lehiara jardun zezaketetik. Irabazi egin zuten; bigarrenari



“  
Olinpismoa  
ukitu genuen,  
tradizioa  
duindu genuen,  
baina  
tradizioan  
geratu gara.

minutu bateko aldea aterazioten, eta arraun egiteari utzi gabe, hel-mugako marra igarota kaira hurbildu ziren; bertan, urtero bezala, bildu ziren milaka eta milaka zale ahozahalik utziz. Estropada guztiak irabazi zituzten eta Getaria-Donostian minutu batzuetako abantaila eman behar izan zieten gainerako ontziciei. Inoiz ikusi gabea zen hura.

Izan ere, gaztetxo haiek kirolariak ziren, atleta zailduak, prestatzaileak zutenak, entrenamenduplana zutenak, Parisko Kirol Medikuntzako Zentroan mediku azterketak egiten zituztenak. Urte hartan hasi ziren arraunlariak kirolari izaten. Estropadak, gaur egun, kirola dira eta arraunlariak dira Euskal Herrian egiten diren

kiroletan fisikoki ondoen prestatuta dauden kirolariak. Egia esan, Oriok tradizioa duin bilakatu zuen, kirol kategoriara igoz.

**OLINPISMOA UKITU** genuen, tradizioa duindu genuen, baina tradizioan geratu gara.

Kontxako estropada ikaragarria da, tostako arraunketako olimpiada da. Baina Kantauriko itsasertzeko herri gutxi batzuetara bakarrik iristen dena. Olimpiada mundu osoko herrien arteko lehia da. Une honetan ez dut ikusten olinpismorantz eramane gaitzakeen zirikiturik eta asmorik; alderantziz, uste dut ahalegin guztia tradizioa sendotzera bideraturik dagoela.

Gaur egungo arraunlariak punta-puntako kirolariak dira. Noiz arte hain toki txikian oinarritzen den tradizio batek eutsi diezaioket punta-puntako kirolariak mantentzeak eskatzen duen ahaleginari? Zergatik ez diogu, eta hau hemen idatzirik bakarrik uzten dudan nire azken hausnarketa da, berrekiten olinpismorako bideari? Eta nire galderari erantzuteko, bi bide sujeritzen ditut:

1. Aulki mugikorrek arrauna sendotu, gure arraunlarien balioa munduari erakusteko.
2. Lan egin tostakoa kirol olinpikoa izateko. Sidney-n ikusi ditugun kirolestatik, zenbaterik dute gure estropadek duten bizitasuna?



**LABASTIDANO PISZINETAN.** Ezkeretik eskubira eta goitik behera, Sidi, Rachid, Gadur, Mamata, Mineia, Jalil, Mamilla, Nayat, Zeina, Meta, Salek, Mulai, Saleh, Mutamulama, Bachir, Mohamed. Argazkian operatu berri zegoen beste Mohamed falta da.

## Urrutiko umeak

Seguru ia guztiok ikusi dituzuela aurtengo udan, bai zuen seme-alabekin edota iloba edo bilobekin jolasean, Saharatik eta Ukrainatik etorri diren neska-mutilak. Uda guztian, Orioko edozein ume bezala ibili dira: hondartzan, futboleko plazan, patinekin, bizikletan...

Gure bizitzako zati bat izan dira eta, batzuentzat oraindik ere, izango dira denbora luzean, bihotzean tokitxo bat hartu dutelako eta hortik ateratzea gauza zaila izango da. Jarraian irakurriko duzue nola bizi izan duten gertutik esperientzia hau bai urrutiko umeek eta, baita, haiek hartu dituzten familiek.

Aurtengo honetan erakutsi dute Orioko herritarrek oso solidarioak direla. Horren testigu dira, izan ditugun hamaibost neska-mutilak, bost ukrainiar eta hamar saharar. Haur hauek, udako bi hilabete inguru egon dira gure artean, eta benetan oriotartuak bukatu dute. *Ez zait erraz abuztuko Orió* esaten zuten etxean haurrak hartu dituzten familiek.

Hala ere, bi lurraldeetako haur hauek etxean hartzearena, guztiz banatuta egon da, nolabait, Sahararren programa udalaren bitartez antolatuta da eta ukrainiarrena beste erakunde batzuen bidez.

#### ATUN LATAK BILTZETIK HASI ZEN

Urte hasieran, atun latak Saharara bidaltzeko deialdia egin zen eta, horrek izan zuen harrera ona ikusita, Euskadin Frente Polisarioak duen ordezkarietatik *Oporrak batean* izeneko programa zabaldu zen, hau da, Saharako haurrak hemen etxean hartzeko deia egin zuen. Martxo aldean, Ongizate zerbitzuak deialdia egin zien Orioko familiei.

Uste baino familia gehiago



**ELKARTASUNA HAGIJSI.** Haurrak etxean izateak, berriko familia asko elkartzu ditu

agertu ziren prest, eta aurrera egin zen programarekin.

#### EZIAKINTASUNA FAMILIEN ARTEAN

Hamalau familiak eman zuten izena, baina, komentatu zigutenez, oso berandu arte ez zuten jakin umeak etorriko ziren ala ez. *Familiak galderek egitera etortzen ziren, eta gauza asko zailak ziren erantzuteko* esan digu Maria Luisa Urbie-

ta gizarte laguntzaileak.

Ekaina arte ez ziren harremanak zehaztu eta, ordurako, familia batzuei abaztu ere egin zitzaizkien izena emana zutela.

#### ORIORATZEN

Haur hauek guztiak primeran integratu ziren, lehenengo astea, gogor samarra izan zen, baina bigarren asterako etxean bezala zeuden. Hala ere, tres-

na askorekin oso harrিতuta geratu ziren, adibidez: komuna, argia, ur faltarik ez izatea... Saharako egoera kontuan hartuta ez da harrিতzekoa ume batek, otorduen ondoren, so-bratzen zen ura, berriaz hotei-lan sartzen ahalegintzea.

Orokorrean, oso langileak ziren, eta etxean beti laguntzen zuten. Hala ere, tartean izan da haur bihurriten bat



**Walad Mohamed**

*Haurren begiralea*

Badakizue oso desberdinak direla hemengo eta Saharako errealitateak. Han, kanpamentuetan bizi dira, eta familia bakoitzak bere *haima* du, bertan gurasoak eta 5-7 seme-alaba bizi dira. Gaur egun kanpamentu hauek, Argeliako hegoaldeko desertuan kokatzen dira, Tindufen. Bertan ez dute jostailurik eta udan 50 gradutik gora egiten du; beraz, hona oso gustura etortzen dira. Gainera, medikuarengana joateko aukera dute, errebisioak egitera.

Umeek Orion oso ondo pasa dute, eta eskerrak eman nahi dizkiet, berrekin lan egin duten guztiei.



**Zeina Ahmed Barek**

Oso ondo pasa dut, dena gustatu zait, batez ere telebista. Familia oso ondo portatu da, eta jende asko ezagutu dut. Hala ere, gogoia badut Saharara bueltatzeko eta gurasoak ikusteko.

**Mohamed Salem Salek**



Primeran pasa dut Orion eta gehiena bizikleta, zinea eta kotxean ibiltzea gustatu zait. Etxera joateko gogoak ditut, baina hurrengo urtean posible balitz, etorriko nintzateke.

**Teresa Solaberrieta**

*Gurasoa*



Etxean tokia nuen eta, jubilatuta nagoenez, haur bat hartzea erabaki nuen, gainera, ekintza solidarioa zen. Primerako esperientzia izan da Matamulana etxean izatea.

Etorri zenean, konturatu nintzen mutikoak oso kultura matxista zuela eta harritu egin zen etxean gizonik ez egotea. Hala ere, oso gustura zegoen. Denetik zeukan eta etxeko errege bihurtu zen; telebistaren jabe ere egin zen.

Gure ohituretara ere segituan jarri ziren eta elizara, bataioetara eta estropadetara eraman genituen. Oso mutiko jatorra zen.

eta baita ohitzea pixka bat kostatu zaiona ere.

Gainontzean, oso ondo pasa zuten gaztetxoek. Ekin-tza ugarian parte hartu zuten medikuen bisitekin uztartuz. Hasteko, igeriketa ikastaroa egin zuten; a zer beldurra pasa zutena batzuk uretara sartzeko garaian. Irteerak ere egin zituzten: Igeldora, batek baino gehiagok gustura eramango zuten *txoketako kotsua* etxera; Cabarcenora, hango animalia eta ikuskizunez gozatzera, eta baita Labastidara, txirristadun pisinetara. Horiez gain, oriotar petoak bezala arraunean ere ibili ziren (gustura fitxatuko luke baten bat Kortak). Labur esateko, gauza asko probatu zuten.

#### AGURTZEKO GARAIA

Irailaren 8an joan ziren, eta pena handia hartu zuten hauen



**AINA BARRIAN.** Borrikaldos ospatu zen Saharako egunetan, haurrek beren kultura erakutsi ziguten

inguruan egon zirenek, familiako bat gehiago baitziren azkenean; baina haurrek gogoia zuten Saharara bueltatu

eta etxekoekin berriz egoteko, Mohamedi eta Zeinari begiak operatu zituzten eta oraindik gurekin daude. Hu-

tsune handia utzi dute eta, posible bada, hurrengo urtean berriz haurrek hartzeko prest daude oriotarrak.

## Ukrainarrak

Lehen esan bezala, bost ukrainiar ere izan dira udan herrian. Neska-mutil hauek hartzeko, familiarek bi bide ezberdin aukeratu dituzte: batzuek *Tvernohileko haurrek* izeneko GKE (Gobernuz Kanpoko Erakunde) butetik, eta besteek irratian entzundako iragarki baten bidez.

Haurretako batzuk sampedrotarako etorri ziren eta besteak uztailaren hasieran.

Haur hauek Ukrainian duten egoera ez da oso ona nahiz eta denak ez diren egoera berean bizi. Dirudienek, gizonetako asko edaten dute, eta emakumeak dira seme-alabez arduratzen direnak. Emakume hauen soldatak oso bajuak dira, eta apenas duten janaria erosteko. Gainera, inguru hori kutsatua dagoenez, janaria kanpotik ekarri behar izaten dute eta, hori dela eta, beharrezko produktuak oso garestiak dira; esnea, esaterako.



**OSO POZIK.** Eskerretik eskubira, Marina, Irina, Maria, Julia eta Pablo

Neskek 14 urtekoak ziren, Pablok, berriz, zazpi urte zituen eta gehiago kostatu zitzaion integratzea. Gainera, neskak lehendik ere etorriak ziren eta bazekiten nolakoa zen bizitza hemen. Pablok ez zuen argia ere ezagutzen. Hala ere, bukaerarako gaztelera ere ikasten hasia zen.

#### OSO NESKA-MUTIL AZKARRAK

Gaztetxo hauek bizi duten

egoera ikusita, badirudi heziketan atzeratuagoak zuzela, baina alderantziz da, han irakaskuntza publikoa da, eta oinarritzko hezkuntza denek jasotzen dute. Gero ikasle ona bazara, aurrera egiteko aukera duzu; hori dela eta, denek dute ikasteko gogo handia eta asko saiatzen dira. Orion bertan, gaztekeraz ere asko eta bizkor ikasi dute. Elisa Manteolari eskerrak eman nahi

dizkiete, erakusten jardun duelako.

Oriotarrak oso ondo portatu dira ukrainiarrekin. Udalak, ordea, ez omen die kasurik egin. Familiak, alde horretatik pixka bat minduta zeuden, sahararrekin egin den programaren barruan parte hartu zezaketelako berdin-berdin. Hala ere, oso ondo pasa dute denek, Orio herri txikia izanda, askatasun handia izan dute eta bere kasa ibili ziren. Horrez gain, familiarekin oportetean izan dira eta esplikatu ezin dituzten gauza asko bizitu zituzten, parke tematikoan egon zirenean bezala.

Ettxera bueltatzeko momentua gogorra izan zen, baina hurrengo urtean familia berera bueltatzeko esperantzarekin joan ziren. Aerroportuan, gazteak negarrez ikusita, koordinatzaileak Orion zer eman zieten galdetzen zuen.

# AIAKO berri



LENSE MAGIRDA. Horixe beharko dute 3.000 ume artean jarduten duten maion-maestrak handik onik ateratzeko.

## Umeak Zinemaldian

### ■ Asterix eta Obelixen filma ikusi zuten eskolakoek

DONOSTIAKO ZINEMALDIAREN 48. edizioa lehengo astean bukatu zen. Ekintza ugari izaten dira zinemaldiko programazioaren barruan, hainbat arlo landuz: sari lehia sartzen diren sail ofizialeko filmak, dokumentalak, Zabaltegi saila, zuzendari ospetsu baten filmak (Bertoluccirenak aurtan)...

Programazio horretan, askorentzat gustukoa izaten den atala belodromoan ikusten diren pelikulak dira: batzuk helduentzat, eta beste batzuk haurrentzat. Donostiako Zinemaldiak, azken 14 urte honetan eta dohainik, haurrei

zuzendutako emanaldiak eskaini ditu 3.000 eserleku dituen zine areto izugarri horretan, munduko pantaila handienetako batean.

Horrela, joan den irailaren 29an, Lardizabal Herri Eskolako eta Andatza eskolako lehen hezkuntzako ikasleak *Asterix eta Obelix Zesarren aurka* filma ikustera joan ziren. Eserlekuak haurrez gainezka zeuden eta, erraza ez denez hainbeste ume geldirik edukitzea, Aitzpea Goenaga antzezlea bertan izan zen aurkezle eta animatzaile lanetan. Gustura asko etorri ziren denak etxera!

## Udak emandakoa igerilekuan

IGERILEKUA itxi da eta, Udalean eman dizkiguten datuen arabera, aurtan 296 abono egin dira. Bestalde, eguneko sarrerak horrela banatu dira: herritarrek 507 sarrera hartu dituzte; kanpotarrek, berriz, 3.970. Datu aipagarri bat: 16 urtetik gorakoen artean 2.384 kanpotar izan dira igerilekutik pasa direnak.

Bestalde, galdutako edo ahaztutako gauza pila bat bildu dira aurtengoan ere. Une honetan udaletxean jasota daude, eta abisua emateko eskatu digute, zerbait galdu dutenek lehenbailehen bertatik pasatzeko.

## Musika ikastaroak

IKASTURTE berria hastea-ekin batera, beste hainbat ekintza ere martxan jarri dira (aerobic-a, judoa, eskulana...) eta gauza bera egin nahi du Udalak musikarekin. Horregatik, Udalak abisua pasa digu, esanez instrumentu bat jotzen ikasteko interesa duten guztiek Kultur Etxean eman behar dutela izena urriaren 20a baino lehen, zer ikasi nahi duten adieraziz (txistua, panderoa, txalaparta, gitara...), horren arabera ikastaroak antolatuzeko.

**ITB**  
Industria Técnica de la Bisagra, S.A.  
Fabricación de todo clase de Bisagras ocultas de caudales Bisagras puertas de cristal Bisagras automatizadas, etc.  
Plaza Industrial Aranguren - 4<sup>a</sup> de Santiago  
48013 DONOSTIA (Gipuzkoa)  
Tel: 943 83 0305 - Fax: 943 83 0306 - Telefax: 943 83 13 78 03

**Carmen  
eta  
Txomin**  
Arraindegia  
Tel. 943 83 05 37 - 943 83 27 47

**Itzala**  
Taberna  
Kartetan jolasteko aproposa  
Tel. 943 83 12 59

# Aian filme bat ari dira grabatzen, Etxaldeko erregea izenarekin

Iturraran inguruan ari dira grabatzen azken filma ASEGARCE produktorako kideak. 50 bat lagun dabilta, turtean Karlos Argiñano sukaldaria, aktore lanak egiten; saltsa guztietako perrejila Aiako kazuelan.

ARRETA TALDEA

Iturraran erabat aldatu dute, etxalde-eskola bilakatu dute. Erakusketa tokia literaz beteaz ikusi dugu, kanpo aldean oitotegia, oilo eta guzti, zaldiak ere inguruan dabilta eta baita Mekan 6 robota eta extralurtarren kapsula ere.

Bertan 25 ume eta beste hainbeste nagusi dabilta azken aste hauetan produktore, makilatzaile, dekoratzaile, kamera eta abarrekin. Egunean 12 orduz egiten dute lan, batzutan gauetz ere bai eta, hala ere, 6 aste oso aritu dira grabaketa lanetan. Amezketalar-di aterpean eta Abadiñoko Atxarten ere filmatu da.

ASEGARCE Zinemaren hirugarren filma izango da; aldeaz aurretik *Airbag* eta *Año Mariano* egin ditu produktora horrek. Oraingoan 350 milioi pezetako aurrekontua dute. Gregorio Muro —gidoilaria ere bada— eta Carlos Zabala dira film berriaren zuzendariak.

Euskal Herrian berritzaileak da film hau, irudi errealeak eta hiru eta bi dimentsiotan egindako animaziozko irudiak elkarrekin uztartuko baititu



KARLOS ARGIÑANO, Elias rockzale zabarraren paperean; Adrian Ruiz, Luisen paperean. Argazkiak: Laura 10m.

lehenengo aldiz. Zailena ez da animazioa bera sortzea, Gregorio Muroren esanetan: *sortu dazun irudi bori gero irudi errealean sartzea zaila da. Berreratze bori sinesgarri egitea da zaila.*

Sondak planetako biztanleek Ramakor gaiztoaren jaurregitik Neuronía esfera (planetako biztanleak mentalki kontrolatzeko gaitasuna duena) lapurtzean hasten da istorioa. Ramakorren jarraitzaileak atzetik dituztela, Larrean ezkutatzeko lurtarren itxura hartzea erabakiko dute. Baina marrazki bizidun batzuetan oinarritua oilar baten itxura hartuko du Kirik pertsonaiak. Udarako eskola batean Mikel izeneko haut batekin topo

gingo du eta handik aurrera hamaika abentura gertatuko zaizkie.

Protagonista nagusiak haurrak dira —2.000 artean castingean 25 aukeratu zituzten— eta Mar Saura (haurren begiralea), Javier Martín (etxaldeko zuzendaria), Pepin Tre (sukaldaria), Ramon Agirre (txoferra), Josu Mugika (robota) eta Karlos Argiñano (rockzale zahar bat) dira filmeko beste aktore batzuk.

Duela urtebete hasi zen Gregorio gidoiarekin, eta behin filmaketa bukatzean animazio lanari ekingo zaio. Datarik zehaztu ez duten arren, 2001. urtean zine aretoetan ikusgai izango da filma, lehendabizi gaztelarazko ber-

tsioa merkaturatuko dute eta ondoren euskarazkoa.

Filmaketa jarraitzeko aukera izan dugunak zinema munduaren bitxikeriekin erabat harriruta gaude. Jende askoren eta lan ezberdin ugarien koordinazio zehatza eskatzen du. Une batetik bestera dekoratua erabat aldatzen da eta ez zegoen leku batean ikulu bat jartzen dute. Isiltasuna beharrezko da filmatzeko eta, horrela, pinu moztzaileak eta baserritarren makinak geldiarazi dituzte filmatzeko garaian.

Filmaketa ostean Iturraranek zuen itxura hartuko du ostera eta betiko zereginetara itzuliko da. Bitartean, filma ikusteko irrikitan geratu gara, behingoz bai aktoreek bai guk irudikatu dugun Kirik pertsonaia errealtateko irudiekin nahasian.

2001. urtean izango da ikusgai Iturraranen grabatutako filma

## *Zelatungo erronomia*

JOSE ANTONIO MANTEROLA "ZATAIN"

**Z**elatun eta Ernioi lehengo lekuan jarraitzen badute ere, bertako erronomia bapo aldatu dira azken berrogei urte hauetan. Gu txikitxoak ginela, gogoan daukat, artean eguna noiz argituko zuen arrasto haundirik gabe, Altzola, Urdaneta eta Zarautz aldetik, Pagoetan barrena, jendea taldeka nola joaten zen. Nondik nora zihoazen jakiten ere etzen zaila izaten. Eztarria urratzeko beldur haundirik gabe, oihu luze askoak egiten zituzten. Taldean idi adarren bat edo beste ere izaten zuten gehienean eta eguna bukatzerako hautsak aterako zizkieten. Entzutekoa izaten zen, mendi punta batetik bestera elkarri nola erantzuten zioten. Pagoeta gainean egindako oihuari Beama gainetik beste oihu batekin erantzungo zioten eta hari Erdoizta aldetik beste batekin. Horrela, mendi tarte ezberdinetatik erreka urak itsasoaren bila joaten diran antzera, alde guztietatik gizailarek Zelatun izaten zuten helmuga. Egun guztirako janaria ere gehienek

etxetik eramango zuten eta gero han elkarbanatu. Gu sasoi iritxi ginen garaian berriz, talde bakoitzak bere trikitilaria eramatea egon zen oso modan. Neska eta mutil 20-40 osatu eta aurrera. Zelatuna bidean ordekatxo bakoitzean, trikitia zorrotik atera, pieza pare bat dantzan egin, zatotik ardo trago bana jo eta aurrera. Gurutzera igo, han kalbarioak errezatu ondoren, eguna Zelatun igaro eta iluntze alderako Iturriotza, Bertan, iluntzea dantzan edo berriketan igaro ostean, ahal zuena neska laguntzera. Hau ere, etzen beti nahi bezain erosoa izaten. Adibidez, Andatza, Santio edo Elkanokoak izanik, Errezil alderaino, eta alderantziz igual berriz, errezildar edo Azpeiti aldekoak Etxetabaila, Irutaegi edo Laurgaineraino. Orain gutxiago ibilita nekatzen da jendea. Dena den, oraindik ere, jende asko dago irailean Ernioa joateko ohitura duena.

AIAKO LEIHOA



### SANTA KRUTZ ERMITA

Herriko kaskotik urrutien dagoen auzoa Elkano da, eta bertan dago Santa Krutz ermita. Gauza bitxia gertatzen da han: apaizak meza Zarautzen ematen du eta eliztarrek Aian entzuten dute, bi herrien arteko mugan kokatua baitago Santa Krutz.

Juan Luis Iruburuk egindako argazkia.

**BAR, JATEKETA**  
**OLIDEN**  
Menú Diario • Comuniones  
Bodas • Reuniones Sociales  
Eguneroko Menua • Jauntzetak  
Ezkontzak • Biketak  
Ortzoika Auzoa • 20810 ORIO  
Tel. 943 13 34 51 - 943 83 08 83

AUTOAK AUKERA ONEAN  
**AIA ORIO**  
Telefona: 943 13 04 38

**IGNACIO MANTEROLA e HIJOS, S.L.**  
**PESCADOS Y MARISCOS**  
Bº Ubegun, AIA • Telfs. (943) 13 10 09 • Fax 13 39 52  
Apto. 8 • 20810 ORIO

# XUGA

## *gazteen taldea*

*Garai bateko Xurru-murru gazte taldea desegin ondoren, urte pare batera edo, berriro piztu zen herriko zenbait gazteren artean talde bat sortzeko gogoia. Lehenengo taldearek nolabaiteko segida emateko, Xurru-murru Gazte Asanblada izenarekin bataiatu zuten; luzeegia omen da, eta, laburtze aldera, XUGA izenez ezagutzen dugu.*

**RIKARDO UZKUDUN**

DUELA BOST BAT urte sortu zen XUGA, eta hasieratik asanblada gisa funtzionatu izan du; alegia, gazte guztiak izan dute beren ahots propioa talde barruan. Zentzu horretan betidanik talde irekia izan dela azpimarkatu digute XUGAkoek, herriko edozein gazteren proposamenak entzun eta onartzeko sortua. Berekin hizkeran jardungarenean, garbi laga dute ez dutela menpekotasunik beste inolako talde edo elkarteren batelkin.

Hasieratik, baita ere, talde ireki eta apolitiko gisa, inongo ideia edo alderdi politikori atxiki gabea, definitu zuten XUGA; eta, gaur egun ere, izatera horri eusten diotela nabarmendu digute XUGAkoek. Hala ere, ezinbestean, bizi ditugun arazo politiko eta sozialen aurrean beren desadostasunak aldarrikatu izan dituzte; eta lan horretan jarraituko dute, beti ere, taldetik kanpoko iritzien dependentziarik gabe.

**EKINTZA SOZIO-KULTURULAK**

Lehentxeago aipatu bezala, XUGA Orion eta Euskal

Herrian dauden arazoei aurpegia ematen saiatzen da. Arazo horietako bat euskal pre-soen egoera da, eta hori dela eta ekintza dezente antolatu izan dituzte: akanpada herriko plazan eta aurten antolatutako hondartzako futbol txapelketa, esaterako.

Euskararen aldeko festetarako ere (Kilometroak, Herri Urrats, Ibilaldia...) autobusak jarri izan dituzte; batez ere, gazteen beharrei begira. Tar-

teka-marteka mus txapelketaren bat ere antolatu izan dute, ohikoa baino sari txixixeagoekin.

Aipatzekoa da herriko futbito txapelketa ere XUGA antolatzen duela azken urte hauetan. Txapelketa horretan, 150 bat gazte eta ez hain gaztekin parte hartzen du, udaberriko larunbat arratsaldetan.

**FESTETAN PARTE HARTZEN**

Herriko festak izan dira XUGAren beste kezketako bat. Jendearen eta, batez ere, gazteen parte hartze eskasa ikusita, herritarrek mugiarazteko ekintzak antolatzen saiatu izan dira: herri bazkariak, gazteen arteko herri-kirolak, goitibehera lasterketa, trikutipoteoa, antzerkia, danborrada eta abar.

Horretaz gain, eta taldea finantziazteko, txosna jartzen dute festetan, Udalari ez bai-

tiote inolako diru laguntzarik eskatzen.

**AURRERANTZEAN ZER?**

Udazkenean sartu garenez, XUGAkoak sanikolasari begira jarriak dira eta, orain arte bezala, zerbait antolatzeko asmoa dute. Hasieran esan bezala, taldea guztiz irekia da eta norbaitek festetarako ideien bat bada, berengana burbildu besterik ez du. XUGAkoak larunbat eguerdian elkartzen dira beren egoitzan, Iturbide kaleko 7. zenbakian.

Aurrerantzean, *herri banabere* leuzorritik ateratzen saiatuko dira, orain ume diren beste neska-mutil batzuek gazte izatera iritsi arte, behintzat. 15 edo 20 bat lagun elkartzen omen dira; ea, eta erreza ez bada ere, dinamika honi jarraitzen dioten, herri geza honek gatz dezente behar baitu oraindik.

**EMANUMEN EGUNA.**

*1997ko martxoaren 8an egia zuten protesta selektua plazan, gizonetakoak erratza pasatzen eta emakumeetakoak musean. Alajaina!*



# Orain dela 25 URTE

## TXIKI ETA OTAEGIREN FUSILAMENDUEK EZTABAIDA SORTU ZUTEN

**I**railleko betiko kontua arrauna izaten da Orion; baina orain dela 25 urte bazen, zoribarrez, beste berri bat, garrantzitsua bezain lazgarria gure artean. Urtean zehar izandako hainbat epaiketatan hamaika laguni heriotz-zigorra ezarri zioten. Irailean Francok seiri indultoa eman, eta heriotz-zigorren ordeztu 30 urteko kartzela-zigorra ezarri zien. Beste bostak, ordea, fusilatu egin zituzten irailaren 27an. Hildakoak FRAPeko hiru kide eta ETAko Angel Otaegi eta Juan Paredes Txiki izan ziren. European, Espainian eta Euskal Herrian manifestazio eta protesta ekintza ugari izan zen, nahiz *La Voz de España* ezker gutxi esan, komentarioren bat besterik ez *Furia antiespañola* izenburupean. Orion eztabaida izan zen, erretribimendua egin ala ez, nahiz Kontxa irabazi; eta, azkenean, egin egin zen. Baina manifestazioak ere izan ziren kalean, fusilamenduen aurka, eta baita borrokak ere manifestatzaileen kontra egitera atera ziren guardia zibilekin. Kanposantuan ere egin zen ospakizun bat.

Txiki eta Otaegi fusilatu behar zituztela eta, giro tristeetan ospatu zen Kontxako bandera

### KONTXAKO BANDERA ORIORA.

Lehenengo igandean hau izan zen sailkapena: 1. Orio 2. Lasarte 3. Castro 4. Koxtape 5. Donostia 6. Hernani 7. Sanjuandarra 8. Kaiku Zortzi ontzietatik hiru patroil oriotarrak ziren: Altxerri, Orion; Oliden, Lasarten; eta Klaudio Etxeberria, Donostian.

Lehenengo igandetik bigarrenera ezusteko notizia bat izan zen: Korta anaiek Lasarteko kluba laga zuten, Altunarekin izandako iritzi kontrajarrimgatik. Bigarren igandean, beraz, ez zuten Kontxan parte hartu. Bigarren igandean ere Oriok irabazi zuen, eta Lasarte laugarren iritsi zen. Sailkapen orokorra honela geratu zen: 1. Orio [43-21] 2. Castro [43-45] 3. Lasarte [43-54] 4. Koxtape [43-57].

**BILBOKO ESTROPADAN ORIO HIRUGARREN.** Larunbatean Oriok irabazi zuen estropada, eta igandean Castrok; baina, bi egunetako denborak batuta, Lasartek irabazi zuen bandera, estropadarik irabazi gabe.

### JAIOTAKOAK

- Aratz Oliden Gabirondo, Orion, irailaren 18an.
- Itxaso Uranga Ikutza, Orion, irailaren 27an.
- Olatz Genoba Zubia, Orion, irailaren 29an.
- Aritz G. de Txabarri Argintzerri, Aian, irailaren 25ean.

### HILDAKOAK

- Hamabostaldi honetan ez da hildakorik izan.

### EZKONDUTAKOAK

- Jose Mari Lopez Mitxelena eta Elena Aizpurua Mendizabal, Orion, irailaren 23an.
- Aitor Lertxundi Etxeberria eta Ainhoa Albizu Elizalde, Orion, irailaren 30ean.
- Iñaki Aierza eta Miren Josune Lazkano, Aian, irailaren 23an.

## ZORIONAK

### Ukraniako umeak etxean hartu zituztenei

Gogoratuko duzue nola, aurreko alean, aipatzen genuen, denboraldi baterako kanpoko jendea etxera ekartzea erabaki zaila dela. Horregatik, Saharako umeak hartu zituzten familiak zoriondu genituen.

Beranduegi, baina, konturatu ginen sahararrak bezalaxe ukrainiarrek etxean hartu zituzten familiak ere baditugula herrian. Gainera, aipatzeko da, Udalak ez dituela askorik kontuan hartu udarako prestatu zuen programan.

Beraz, barkatu gure akatsa eta zorionak zuei ere erakutsitako elkartasunagatik.

### ERAZKINAK



**ARATZ OLIDEN GABIRONDO** irailaren 18an jaio zen. Iñaki Oliden oriotarraren eta Ainhoa Gabirondo, zarautzarraren lehenengo semea da. Jaioberri honek suerte berezia du, gainera, bere zortzi birraiton-amonak inguruan baititu, bera zaintzeko gogoz. Gutxitan izaten den aukera.

# Migel Anjel LIZARRALDE



## ‘Denboraldia oso nahasia izan da’

*Bukatu da arraun denboraldia eta heldu da balantzea egiteko unea. Gorabehera asko izan ditu traineruak, baina azken estropadetako garaipenek —garrantzitsuenak, alegia— isilarazi dituzte basierako kritikak. Altxerrirekin aritu gara bizketan. Oso gustura dago egindako denboraldiarekin: tartean, bogeita barmargarren Kontxako bandera eta zazpigarren Espainiako txapelketa segidan zortzikoan. Erraz esaten da, gero!*

**Nola baloratuko zenuke zuen aurtengo denboraldia?**

Guretzat oso positiboa izan dela esango nuke; kontuan hartuta iaiztik hainbeste aldeketa izan direla: arraunlari aldetik, entrenatzaile aldetik, oso positiboa da lortu duguna. Gainera, zortzikoan Espainiako txapelketa irabazi genuen eta trainerilletan ere hortxe ibili ginen. Traineruan, nahiz eta hasieran ikaragarri oker ibili, bukaeran inork uste baino hobeto ibili gara.

**Eta orokorrean?**

Lehenengo urtean baino nahasiagoa izan da. Hasiera, behintzat, oso nahasia izan da; oraintxe batek irabazi, orain-

txe besteak.

Niretzat zerikusi handia izan du Ligarako sail-katze estropada bain goiz jokatzek. Traineru batzuk (Isuntza, Hondarribia, Ondarroa...) estropada horretarako asko prestatzen dira, hileko bizikoa baita beraientzat Ligan sartzea. Horrela, ondo ibiltzen dira uztailean; baina, gero, gaitzatzeko koadrilak, denborarekin sasoiaren jartzen garenak, hobeto ibiltzen gara abuztu aldera. Lehen, Ligarik ez zegoenean, ez zen horrelakorik gertatzen, denak Kontxari begira jartzen haikinen. Aurtan, Koxtape izan da hasieratik bukaerara traineru erregularrak bakarrik.

**Kontxa irabazteaz gain, zortzikoan Espainiako txapelketa irabazi duzue, zazpigarren aldiz segidan; ikaragarria da hori!**

Nik uste dut inork ez diola duen garrantzia ematen. Iruditzen zait, azken urteetan, Orion pasa den gauzarik garrantzitsuenetakoa badela. Zazpi urtean jarraian irabaztea eta maila horretako zortziko osatzea ez da erraza; behin ere ez da gertatu horrelakorik inon.

Aurtan oso gustura gelditu gara Bordelen irabazitako estropadarekin. Urte asko ziren hango zortzikoari inork irabazi ez ziola. Gogoratu behar da Frantziako txapelkunak direla, eta Frantziaren, Espainiarekin alderatuz, maila altuagoa dagoela. Zortziko horretako mutiletako bat da Olinpiadetan lemazain gabeko hikoan urrezko domina irabazi duena; nahiz eta gure aurka ez zuen jokatzeko aukerarik izan, kontzentratuta baitzegoen. Orain, beste errespeto bat du Orioko zortzikoak inguru haieran.

**Gero, ordea, Santurtzikoa kenduta, oso makal aritu zineten Zaruzko estropada arte.**

Asmatu ezinik ibili ginen. Aldaketa asko egin genituen, trainerua, mutilen kokalekua... eta preparazioa abuztu aldera bideratuta dagoenez, pixkanaka-pixkanaka etorri zaigu sasoi. Egia esan, gauza asko pilatu dira aurtan eta azkenean bidea topatu dugu. Halere, ni seguru nengoen neguan egindako lana aterako zela, nola edo hala, oso ondo entrenatu baikenuen. Kezka bagenuen non ari ginen huts egiten, baina pazientzia handia izan dugu eta ez dugu burua galdu. Euskadiko txapelketan ikusi nuen nik, traineruak bide ona hartu zuela.

**Lehenengo urtean Hondarribiko eskaintza jaso zenuen; datorren denboraldian hemen izango al zaitugu?**

Bai. Hurrengo urtea oso garrantzitsua da herriarentzat eta garbi daukat Orion jarraituko dudala. Gerora, inork ez daki zer gertatuko den.



## Bi urte Txiki joan zenetik

**U**rriaren 24an bi urte izango dira zoritxaurreko automobil istripu hark Txiki gure artetik eraman zuenetik, baina denbora horrek ez digu haren oroitzapena ezabatu.

Aurreko urtean Kontxan huts egin, bandera Pasai aldera joan, eta oriotarrok ez genuen modurik izan bandera Txikiri eskaintzeko. Baina aurten, berriz, Kontxako bandera irabazi digute herriko arraunlariek eta modua izan dute, bai arraunlariek eta baita herriak berak ere, bandera hori Txiki handiaren oroitzapenez ospatzeko.

### TXIKIREN ORDEZ KANPA

Aurten, gauzak normal joanda, Txiki izeneko traineruan irabaziko zuten oriotarrek hogeita hamargarren bandera; aurten estreinatu duten

ontziari Txikiren izena jarri baitiote. Baina Galiziatik ekarritako trainerua, Kanpa izenez bataiatu zutena, ikaragarri ona atera da eta, dagoeneko urte batzuk baditu ere, berarekin segitu dute.

### TXIKIREN AZKEN ARGAZKIA BANDERAREKIN

Horrelaxe gogoratuko dugu beti Txiki, argazkian bezala, bandera eskuan, irribarrea ezpainetan eta bihotza zabalik, jator eta zintzo. Argazkian Maria Angeles Arrutirekin ageri da, Oriok duen jarraitzailearik sutsuenetako bat bera. Erretratoa, txuribeltzean atera dugunez, ez dago ondo ikusterik, baina soinean zituen arropa guzti-guztiak horiak zituen Maria Angelesek, Txiki Kontxako bandera eskuan zuela egindako azkenetako argazkian.

*Maria Angeles Arrutik utzitako argazkia.*

**ICEGELATO**  
Etxeko helatuak eta kruasanak  
San Nikolas, 17 Tfnoa: 943 13 17 47

**ITZIAR**  
Kirolak  
943 83 31 03

**JUANTXO**  
**harategia**  
Berengo txekorra  
Especialitatea: tripakiek, odolikiek,  
etxeko produktuek...  
Tfnoa: 943 83 13 37

**ZUMINTZA**  
•Manikura  
•Pielkura  
•Masajak  
•Dopazio berria eta epela  
Tfnoa: 943 83 17 56  
**SOLARIUM**

## IKASTAROAK

- EGA prestatzeko ikastaroa, Orioko Kultur etxean. 16 urtetik gorakoentzat. Urritik ekainera. Matrikulazioa urriaren 6a arte, Udaleko Euskara Zerbitzuan. Tel. 943 830028.
- Aian, urriaren 19an hasiko dira hari-lanak ikasteko klaseak, 3:30tik 6:30ak arte.

## HITZALDIA

- Orioko kultur etxean, urriaren 19an, tabakoari buruzko hitzaldia. Estitxu Fernandez bertsolari eta psikologoak emango du.

## ERAKUSKETAK

- Juan Jose de Garai pintorearen erakusketa, Orioko Kultur-etxean, urriaren 15a arte. Astegunetan goizeko 9etatik 1era eta arratsaldeko 4etatik 7etara, larunbat eta igandean 12etatik 2etara.

## FUTBOL PARTIDUAK

- Kadeteen 2. maila: urriaren 15ean, Orioko F.T. Groseko K.E. San Ignazio-ren kontra.
- Gazteen 1. maila: urriaren 15ean, Orioko F.T. Zu-



**PINTURA-LANAK.** Juan J. de Garaiaren margoak daude kultur etxean ikusgai.

maiako F.T.ren kontra.

- 1. Erregionala: urriaren 15ean, Mondragon C.F. Orioko F.T.ren kontra.

## DIRU LAGUNTZAK

- Euskara ikasteko diru laguntzak eskaintzen ditu Udalak herritarrentzat. Eskaera egin beharko da Euskara Zerbitzuan, ikastaroa bukatu ondoren.

## ESKURTSIOA

- Orioko Zahar-etxeak prestaturik, Arantzazuko Santutegira joateko, urriaren 25ean. Txartelak 16tik 19ra salduko dira, arratsaldeko 5etatik 7etara; 4.000 pezetan, joan-etorria, hamaiketakoa eta bazkaria barne.

## PODOLOGOA

- Aian, urriaren 21ean, podologia zerbitzua. Izen-ematea, udaletxean. Tel. 943 13 11 44.

## SURFA

- Orioko surf txapelketa jokatu da urriaren 7an eta 8an.

## ZOKKETA

- Orioko Udal Musika Eskolako Akordeoi Orkestrak antolatuta, Torrelavegako lehiaketara joateko gastuak arintzeko. Saria: bi lagunentzako mariskada, Txartelak salgai, ehun pezetan.

## SOFBOL

- Urriaren 7an eta 8an, seniorrek parte hartuko dute Erreginariaren Kopan, Bartzelonan.

## ZAINZAKO BOTIKAK

## URRIA

7 eta 8an, Uranga  
9, 10, 11, 12, 13, 14 eta 15ean, Las  
16an, Azaldegi  
17an, Mutiozabal  
18an, Irigoien  
19an, Olaizola  
20an, Uranga

AZALDEGI: Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 ZARAUTZ  
BARRENETXEA: Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98

ZARAUTZ  
MUTIOZABAL: Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 ZARAUTZ  
OLAIZOLA: S. Frantzisko kalea, 16. 943 13 38 14

ZARAUTZ  
LASA: Herriko plaza. 943 83 09 36 ORKO  
URANGA: Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 ZARAUTZ  
IRIARTE: Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 ZARAUTZ

**MAKAZAGA**  
**Igaltzeriba**

• Igaltzeriba orokorra, denetarik egiten dugu

• Presupuestoak eskatu konprometuzik gabe

Lan hauak eta merkeak

Tfnoa: 943 83 59 00

**AHOLKULARITZA**  
Fiscal, laborala, kontablea

**Eugenio Garmendia**

**ASEGURU ARTEKARIA**

IBAI ONDO, 1  
Tel: 943 83 44 66 - 943 83 49 17

**DORRONSORO**

**JANARIDENDA**

0943 83 59 00



-pintura lanak  
-barnizaketak  
-akutxillatua

PINTURAS  
**ASIER**

Aitzpea kalea 2, 1º  
943 83 46 13 - 629 43 81 55 AIA

**KARKARA**

EGIN EZAZU ZURE PUBLIZITATEA

**943 83 15 27** **ALDIZKARIAN**

